

## I. ERANSKINA

### **DIRULAGUNTZEI BURUZKO 11/2005 FORU LEGEAREN 13. ETA 15. ARTIKULUETAKO BETEBEHARREN GAINEKO ADIERAZPENA**

Izen-deiturak:

NANaren/AIZren zenbakia: .....

#### **ADIERAZTEN DUT adierazpen honetan agertzen den informazio guztia benetakoa dela eta oso-osorik eman dudala.**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuek xedatzen dutenez, bertan aipatzen diren inguruabarretako batean dauden pertsona edo entitateak ezin izanen dira foru lege horretan araututako dirulaguntzen onuradun izan.

Artikulu horrekin bat, adierazten dut ez nagoela inguruabar hauetako bakar batean ere:

- a) Epai irmoan ezarritako kondenaren ondorioz dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko gaitasunaz gabeturik egotea.
- b) Konkurtso deklarazioa eskatua izatea, ezein prozeduratan kaudimengabea deklaratu izatea, konkurtsoa deklaratu izatea, kontu-hartze judizialaren menpe egotea eta, Konkurtsoei buruzko Legearen arabera, ezgaitua egotea (konkurtsoa kalifikatzen duen epaian finkatutako ezgaitasunaldian).
- c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsipen irmoa eragin izana, suntsipenaren kausaren errudun deklaratu badituzte.
- d) Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak, indarra duen araudian ezarritako bateraezintasunak izatea.
- e) Zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez izatea, eta zorrak izatea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin edo haren erakunde autonomoekin.
- f) Egoitza fiskala erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean izatea.
- g) Ebazpen irmo batean ezarritako zehapenaren ondorioz, dirulaguntzak lortzeko gaitasunaz gabeturik ez egotea Dirulaguntzei buruzko Foru Legean, zergei buruzko lege orokorretan edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko legeetan ezarritakoaren arabera.

**Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 15. artikulua** ezartzen ditu emandako dirulaguntzek publikitatean dituzten betebeharrak.

Aipatutako artikuluko 2. puntuaren arabera, aditzera ematen dut dirulaguntzaren xede diren programen, jardueren, inbertsioen eta edozein motatako ekintzen finantzaketaren izaera publikoa zabalduko dudala.

Dirulaguntza arautzeko oinarrietan zehaztuko da nola egin behar den zabalkunde hori.

.....(e)n, 202...(e)ko .....aren .....(e)(a)n

(Eskatzailearen sinadura)